



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

III. ERANSKINA : JARRAIPENA

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea, enpleguari eustea eta Gipuzkoan enpresak sustraitzea.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan errotutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eraldaketa proiektuak izango dira, eta helburu hauek izango dituzte:

- Enpresaren ondorengotza eta/edo transmisioa planifikatzea.
- Enpresaren hazkunde ez-organikorako estrategiak definitzea.
- Enpresaren transmissioko prozesuak garatzea.
- Belaunaldi erreleboa bermatzea.
- Gobernu korporatiboko egiturak eta prozesuak sortzea eta horiek trebatzea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta III.eranskina - 5.oinarria).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.



EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderekin, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko uztailaren 19an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2022ko ekainaren 17a.**

Proiektuak justifikatzeko data: **2022ko uztailaren 17a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia: III.ERANSKINA - Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea. (2021eko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 114 zk. 2021eko ekainaren 18an](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/jarraipena>
- Eskera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus